


# INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa **2024**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

Data

Martxo 2024

Jabea

Eusko Jaurlaritza.



 **euskadi.eus**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)



<b>1. SARRERA.....</b>	<b>2</b>
<b>2. 2024KO PROGRAMAREN HELBURUAK .....</b>	<b>2</b>
<b>2.1.- 2024KO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK.....</b>	<b>4</b>
<b>2.2.- 2024KO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA JOMUGAK.....</b>	<b>6</b>
2.2.1.- 2024/01 proiektua: IPPC jardueren jarraipena ikuskatzea .....	6
2.2.2.- 2024/04 proiektua: Ingurumen-Erantzukizuna .....	7
2.2.3.- 2024/02 proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua. 9	
2.2.4.- 2024/03 proiektua: Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE) ikuskatzea .....	10
2.2.5.- 2024/05 proiektua: Hondakinak lekualdatzea .....	11
2.2.6.- 2024/06 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa.....	13
2.2.7.- 2024/07 proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean.....	14
<b>3. GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEA.....</b>	<b>15</b>
<b>4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....</b>	<b>16</b>
<b>5. KONTROL-PLANA.....</b>	<b>16</b>
<b>6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.....</b>	<b>16</b>
<b>7. INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.....</b>	<b>17</b>

## 1. SARRERA

Programa honek 2024an garatuko ditugun Ingurumen-ikuskapeneko proiektuak zehaztea du xede, hartara betetzeko bai Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Plana —Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak egina—, baita arlo horretako indarreko araudia ere.

Ildo horretan, gogorarazi behar dugu 2021eko abenduaren 31n argitaratu zela EHAAn 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzkoa. Bertan adierazten denez, administrazio publikoek alde aurretik ezarritako ingurumen-ikuskapeneko programak egingo dituzte aldizka, jarduera mota bakoitzerako bisita-maiztasuna edo -kopurua barne hartuta.

Horretarako, 2024an garatuko ditugun proiektuek Planaren helburu estrategikoak aintzat hartuko dituzte, eta haien oinarrizko agirietan jasoko dira xehetasun operatiboak, jarduera-plana eta jarraipena. Programa horrek, funtsean, proiektuen helburuak eta jomugak jasotzen ditu, baita helburu estrategikoekin duen lotura ere.

Alde horretatik, eskumeneko organoek emandako jarraibide guztiak aztertuko dira ikuskatze-jarduerak garatzeari dagokionez; geroago, aipatutako araudiaren inpaktua balioetsi beharko da, baita adierazitako helburuak betetzeko Estatuko eta autonomietako eskumeneko organo guztiek emandako jarraibideak ere.

## 2. 2024ko PROGRAMAREN HELBURUAK

2024ko Ikuskapen eta Kontrolerako Programa funtsezko zutabe hauetan dago oinarrituta:

- a) **IPPC ekintzen jarraipena egiteko ikuskapenak**<sup>1</sup>. Ikuskapen horien helburua da IPPC enpresek ingurumen-araudia eta -kudeaketa neurri jakin batean bete ditzaten sustatzea.
- b) **IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea**. Ikuskapen horien helburua da IPPC ez diren enpresek ingurumen-araudia eta -kudeaketa neurri jakin batean bete ditzaten sustatzea, arreta berezia jarrita ingurumenean kalte esanguratsua eragin dezaketan alderdietan.

---

<sup>1</sup> Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren esparruko jarduerak. Dekretu horren bidez, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartu zen.

- c) **Emisioak Etengabe Neurtzeko Sistemak (EENS).** Proiektua lantzen jarraituko da, denboran barrena operadoreek betetze-maila optimoa lortzen dutela ziurtatzeko, jaso dituzten baimenetan zehaztutako baldintzei eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak EENSei buruz argitaratutako jarraibide teknikoei begira.
- d) **Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILEak).** Atmosferara egindako emisioen kontrolen kalitatea eta adierazgarritasuna bermatzeko, atmosferara egindako emisioak kontrolatzeko ikuskapenak mantenduko ditugu 2024an kontrol ofizial gehien egiten dituzten Ingurumen Lankidetzako Erakundeek, eta zarataren eremuan lan egiten dutenen kontrol-ikuskapenaren prozedura ezarriko da. Aldi berean, Ingurumen Lankidetzako Erakundeek Erregistroa eguneratzen jarraituko dugu, EAEn lan egiten duten ILEak erregistratuta daudela ziurtatzeko.
- e) **Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legea.** Proiektu honen helburua da beharrezkoak diren kontrolak ezartzea eta egitea operadoreek Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legetik eratorritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko.
- f) **Hondakinak mugaz haraindi lekualdatzea eta hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko jarduerak kontrolatzea.** Alde batetik, hondakinaren mugaz haraindiko lekualdatzeak kontrolatzeko proiektu espezifikoa gauzatzen jarraituko da, eta lehentasunezko eremutat hartuko dira hondakinak Europar Batasunetik sartzeko eta Europar Batasunera ateratzeko puntuak, lekualdatzeak, operadoreak eta beste administrazio batzuetako komunikazioak.
- g) **Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.** 2024an, hiru proiektu gauzatuko dira ingurumeneko arazoak konpontzeko edo arintzeko xedez:
- Jarduerak amaitutakoan, hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduera horiekin lotutako ingurumen-arriskua kontuan hartuta.
  - Abisuak eta programatu gabeko ikuskapenak kudeatzea, kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin lotuta. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, informazioa jaso eta egoera noiznahi ebaluatu ahal izateko, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak gutxitzeko komeni diren jarduerak hasteko ere.

## 2.1.- 2024ko helburu estrategikoak eta proiektuak

Ondorengo taulan, Ikuskapen eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoen barruan 2024ko ekitaldirako programatutako proiektuak daude jasota.

Planaren jarduketa-ildo estrategikoak (4.3 apartatua)	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	HELBURUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
1/2016 LEDen mendeko enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea	2024/01	IPPC jardueren jarraipena ikuskatzea	<p>Arrisku-ebaluazioaren emaitzen arabera programatutako ikuskapenak egitea.</p> <p>Jarraipen espezifikoa egitea betetze-maila baxuena duten enpresei, ingurumenean gehien eragiten dutenei edo arrisku handiena dutenei.</p> <p>IPPC jarduera berriak ikuskatzea, abian jartzen direnetik urtebetera.</p>
	2024/04	Ingurumen-erantzukizuna	Behar diren kontrolak ezartzea, garatzea, eta jarduerak artikulatzea operadoreen betebeharren betetze-maila bermatzeko finantza-bermea eratzeari dagokionez.
Arrisku handieneko kutsadurari buruzko 1/2016 LEDen mendekoak EZ diren enpresek Ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea	2024/02	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	<p>IPPC ez diren jarduera multzo berriak ikuskatzea, bai eta aurrez ikuskaturiko jarduerak, betetze maila ertaina edo baxua izan zutenean.</p> <p>Ingurumen-araudia betetzea ziurtatzea eta hobetzea, ikuskapenetan antzemandako desbideratzeak zuzenduz.</p>
	2024/03	ILEak ikuskatzea	Ziurtatzea ILEek aplikatu beharreko araudia betetzen dutela eta beraien kontrolak adierazgarriak direla.
Hondakinen mugaz haraindiko lekualdatzeari buruzko araudia betetzen dela bermatzea	2024/05	Hondakinen lekualdaketa	Batasuneko hondakinen lekualdatzeak sarrera-/irteera-puntuetan, lekualdatzeak eta operadoreak ikuskatzea.

EAEko industria-jarduerei lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea	2024/08	Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea	2024/06	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	Urteko 365 egunetan, 24 orduko erantzun-zerbitzua, gorabeheretan eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko.  Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea Larrialdi Planen eta taktika operatiboen aurrean.
EAEko industria-jarduerei lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea	2024/07	Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.

Proiektu guztiak jarraian adierazten den egitura duen dokumentu batean garatzen dira. Proiektu hauen berri ematen diogu Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, balioetsi ditzan.

1. Aurrekariak
2. Proiektu mota
3. Helburuak eta jomugak
4. Jarduketa-plana
5. Adierazleak
6. Jarraipena
7. Errekurtsoak
8. Kronograma
9. Txostenen zerrenda



## 2.2.- 2024ko ikuskapen-proiektuak: helburu espezifikoak eta jomugak.

Jarraian, proiektuen helburu espezifikoak eta jomugak zehazten dira, Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planaren ildo estrategiko bakoitzaren barruan.

*Helburua: 1/2016 LEDen mendeko enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea*

### 2.2.1.- 2024/01 proiektua: IPPC jardueren jarraipena ikuskatzea

IPPC araudiaren aplikazio-eremuan dauden instalazioek ikuskapen-plan bat eduki behar dute, hala xedatzen baita bai Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2010eko azaroaren 24an emisio industrialei buruz onartutako 2010/75/EB Zuzentarauaren 23. artikuluan (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez ekarri zen gure ordenamendu juridikora) bai 815/2013 Errege Dekretuan.

Oinarritzat hartuz Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Plana, ikuskapen-programak egiten ditugu, zeinek instalazioetara egingo ditugun bisiten maiztasuna barne hartzen duten. Bisita-maiztasun hori arriskuak ebaluatzeko prozeduraren arabera antolatzen dugu. Arriskuak ebaluatzeko prozedura Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren webgunean argitaratuta dago, programatutako eta programatu gabeko ikuskapen-prozedurekin batera.

2024an, programatutako ikuskapena egingo zaie 134 IPPC jarduerari. Horietatik 47k programatutako azken ikuskapena 2023an izan zuten, 44k 2022an eta 41ek 2021ean, eta 2 instalaziotan lehen aldiz egingo da programatutako ikuskapena.

Puntu honetan, adierazi behar da IPPC 2024 jarraipeneko ikuskapen-proiektuaren barruan programatuta daudela jardunean dauden hondakinak ezabatzeko instalazioen % 100eko in situ ikuskapenak, hondakin kopuru adierazgarrietan ezabatzen dituzten heinean.

Azkenik, proiektua gauzatu bitartean, ikuskapen batean nabarmen egiaztatzen badugu ingurumen-baimen integratuaren baldintzak ez dituztela betetzen, abenduaren 16ko 1/2016 LEDen aurreikusitako zehapen-araubidea alde batera utzi gabe, sei hilabeteko gehieneko epearen barruan, beste bisita bat egingo dugu instalaziora.

### Helburu espezifikoak eta jomugak

- 2024rako programatutako instalazioen % 100 ikuskatzea 2024/12/31 baino lehen.
- Desbideratze larriak edo esanguratsuak dituzten instalazioen % 100 ikuskatzea 6 hilabete baino gutxiagoko epean.
- Txostenen eta, hala badagokio, haiei lotutako errekerimenduen % 100 igortzea, ikuskapena in situ egin eta gehenez ere 2 hilabeteko epean.
- Programatutako eta programatu gabeko ikuskapenen txosten publiko guztiak argitaratzea, ikuskapena egin eta gehenez ere 4 hilabeteko epean.
- 2023an programatutako eta programatu gabeko ikuskapenetan hautemandako desbideratzeen % 100en jarraipena egitea.
- IPPC berriei ikuskapena egitea, IBB lortu ondoren martxan jarri eta urtebetetik beherako epean.

***Helburua: Ingurumen Erantzukizunari buruzko araudia betetzen dela bermatzea.***

#### **2.2.2.- 2024/04 proiektua: Ingurumen-Erantzukizuna**

Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikulua ezartzen du lege horren III. eranskinean sartuta dauden jardueren operadoreek nahitaezko berme finantzarioa eratu beharko dutela. Era berean, ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduak lehentasun-hurrenkera eta egutegia ezartzen ditu Ministerioaren aginduak onartzeko; orduetik, nahitaezko berme finantzarioa eratzea eskatuko da.

2017ko urriaren 30ean, APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan —ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuak— nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena.

1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme bat eduki behar dute beren jardueren gaineko ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko, eta APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik urtebeteko epean lortu beharko dute bermea hori; hots, 2018ko urriaren 31rako. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak bi urteko epean eduki beharko dute finantza-berme hori; hau da, 2019ko urriaren 31rako.



2019ko urriaren 15ean, urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua argitaratu zen, zeinetan ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitaezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri —ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatuak—. Zehazki, 3. lehentasun-mailako jarduerak 2021eko urriaren 16tik aurrera eduki beharko dute beren jarduera edo jardueretako ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko bermea; salbuespen dira eskortako hegaztien edo txerrien hazkuntza intentsiboko jarduerak. Horiek 2023ko urriaren 16tik aurrera eduki beharko baitute nahitaezko finantza-bermea.

Ezarritako sistematikari jarraituz, 2024. urtean, III. Eranskinean sartutako operadoreek Ingurumen Erantzukizunari buruzko araudia betetzen dutela bermatzeko helburuarekin, egiaztatuko dugu behartuta dauden operadore guztiek erantzukizunpeko adierazpena (EA) aurkeztu dutela, Abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 33. artikulua 4. eta 5. atalek ezarri legez.

Bestalde, operadoreek aurkeztutako dokumentazioa formalki egiaztatuko dugu, bai ingurumen-arriskuen azterketak berrikusten dituztelako – abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikulua 3. Atalak ezarrita-, bai horretara behartuta dauden instalazio berriak direlako.

Azkenik egiaztatuko dugu arauz ezarritako metodologiaren arabera betetzea behintzat 60 operadorek aurkezturiko ingurumen arriskuen analisietan.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

-  Behar diren kontrolak ezartzea, garatzea eta jarduerak artikulatzea operadoreen betebeharren betetze-maila bermatzeko finantza-bermea eratzeari dagokionez.
-  Egiaztatzea zenbateraino betetzen den arauz onartutako metodologia, EAEko operadoreek aurkeztutako 60 ingurumen arrisku-azterketatan gutxienez.

**Helburua: Arrisku handieneko kutsadurari buruzko 1/2016 LEDen mende EZ dauden enpresek Ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea.**



### **2.2.3.- 2024/02 proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua**

Aurreko urtean ezarritako sistematikarekin jarraitzeko, IPPC ez diren eta *a priori* kutsatzeko ahalmen handia izan dezaketen jarduerak ikuskatzen jarraitzen da. Hala aurreikusitako 220 ikuskapen egitea operadoreetan. Aldi berean, aurreko ekitaldiko ikuskatzeetatik ateratako datuak ustiatuko ditugu, eta jarraipena egingo diegu ez-betetzeak dituzten eta zuzentzeko eskaera egin diegun enpresei, baldin eta aurrez aurreko ikuskapenean ez bazuten betetze maila handia izan, egoera hobe dezaten.

Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren arabera (17. artikulua eta VI. eranskina), eskatzen da aldizkako ikuskapenak egitea hirurteko gutxieneko aldizkakotasunarekin. 2024. urtean, IPPC ez diren baimendutako zabortegiak ikuskatzen jarraituko da, aipatutako Errege Dekretuan ezarritako eskakizuna betetzeko.

Proiektu hau hainbat urtetarako da, eta 2014an hasi zen jardunean. Unitatean eskuragarri dauden baliabideen arabera, Ikuskapen Zerbitzuko langileek ikuskatuko dituzte proiektu honekin lotutako zenbait jarduera, eta, gainerakoetan, Laguntza Teknikoaren babesa izango dute.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

-  2024rako aurreikusitako IPPC ez diren jardueren % 100 ikuskatzea 2024/12/31 baino lehen.
-  2023an ikuskatutako enpresen % 100i jarraipena egitea, baldin eta errekerimenduari erantzunik eman ez badiote edo nahikoa izan ez bada.

#### 2.2.4.- 2024/03 proiektua: Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE) ikuskatzea

Ingurumen-lankidetzako erakundeak (ILE) nortasun juridiko propioa duten erakundeak dira, publikoak edo pribatuak, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailaren laguntzaileak, jarduerak egiaztatzeko, balioesteko eta kontrolatzeko jarduerak egiteko.

Zentzu horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak kudeatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) Erregistroa.

2014az geroztik, ikuskapenak egiten ditugu Ingurumen Lankidetzako Erakundeek (ILE) atmosfera kutsa dezaketen jardueren (emisioa) kontrolaren esparruan egiten dituzten neurketa- eta kontrol-jardueretan, kontrolen adierazgarritasuna egiaztatzeko eta ILEek aplikatu beharreko araudia betetzen dutela egiaztatzeko.

Bestalde nabarmendu behar dugu, proiektu honen baitan, landu dugula ikuskapenean laguntzeko dokumentazioa; hor dira, besteak beste: emisioak kontrolatzeko betekizun orokorren ikuskapen-gidak; kutsatzaileen fitxak, kutsatzaile gehienei aplikatu beharreko neurketa-arauei dagokienez (partikulak, errekontza-gasak, SO<sub>2</sub>, metalak, merkurioa, NO<sub>x</sub>, COT, HF) eta ikuskapen-prozedurak.

Aurreko urteetako lan egiteko moldeari jarraikiz, beharrezkotzat jotzen dugu ILEak ikuskatzen jarraitzea 2024an Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (emisioa) kontrol-eremuan eta Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa eguneratzen jarraitzea, EAEn lan egiten duen edozein ILE erregistratuta dagoela ziurtatzeko.

##### Helburu espezifikoak eta jomugak:

- 🌱 ILEek fokurak neurtzeko ezarritako araudia betetzen dutela ziurtatzea, eta, horretarako, hiru ikuskapen egitea.
- 🌱 ILEen kontrolen adierazgarritasuna egiaztatzea, bereziki airearen ingurumen-bektorean arazoak dituzten jardueretan.
- 🌱 Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa eguneratuta edukitzea, EAEn lan egiten duen edozein ILE erregistratuta dagoela ziurtatzeko.

***Helburua: Mugaz haraindiko hondakinen lekualdatzeari buruzko araudia betetzen dela bermatzea.***

### **2.2.5.- 2024/05 proiektua: Hondakinak lekualdatzea**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 660/2014 Erregelamenduaren bidez 1013/2006 Erregelamendua (EB) aldatu zen, eta, hartan ezartzen denez, estatu kideek mugaz haraindiko hondakinak lekualdatzeko prozedura ikuskatzeko plan bat edo gehiago eduki behar dituzten, 2017ko urtarrilaren 1erako beranduenez. Plan horietan, besteak beste, ikuskapenaren helburuak eta lehentasunak jasoko dira, eta gutxienez hiru urtean behin berrikusiak izango dira, eta, hala dagokionean, eguneratuak.

Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planak, helburu estrategikoen artean, jasota ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14an hondakinak lekualdatzeari buruzko 1013/2006 Erregelamenduaren (EE) 50. artikulua betetzen jarraitzea, 660/2014 Erregelamenduan (EB) agindu bezala, zeinek ezartzen baitu estatu kideek berriaz bermatuko dutela haien lurralde geografiko osoan plan bat edo gehiago ezarrita dutela beranduenez 2017ko urtarrilaren 1ean, hala nola plan modura edo beste plan batzuen barruan txertatuta, horien bidez hondakinak lekualdatzeko eta balorizatzeko edo ezabatzeko prozesuak ikuskatzeko. Bestalde, aipatutako planak, berrikuspenari buruzko zortzigarren atalean, ezartzen du berrikuspena justifikatzeko adinako garrantzirik ez duten aldaketak, plana garatzeko aurreikusitako Urteko Programetan ezartzen joango direla.

Aurrekoa kontuan izanda, eta 2019 - 2026 Planean jasotako mugaz haraindiko hondakinen lekualdaketa ikuskatzeko plana berrikusteko eta, behar izanez gero, eguneratzeko beharra betetze aldera, 2023an, 2022ean bezala, berrikusia izan da, eta ez dugu beharrezkotzat jo hura eguneratzea.

Bestalde, aipatutako 660/2014 Erregelamendua (EB) ezartzen du ikuskapen-planak arrisku-ebaluazio batean oinarrituko direla eta ebaluazio horren helburua izango dela, besteak beste, eskatuko diren ikuskapenen gutxieneko kopurua zehaztea, establezimendu, enpresa, negoziatzaile eta hondakinen lekualdatzeetako dagokien balorizazio edo ezabaketako kontrol fisikoak barne.

Aurreko urteetan ezarritako sistematikari jarraituz, hondakinak mugaz haraindi lekualdatzeko prozesuak modu programatuan ikuskatzen jarraitzen da.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- 🌸 Ikuskapen programatuak EBko estatu kideetatik edo estatu kideetara hondakinak inportatzen/esportatzen dituzten operadoreetan. 9 ikuskapen egingo zaizkie operadoreei.
- 🌸 Ikuskapen programatua portuetan. Portuen ikuskapenak egingo dira, Aduanak gure laguntza eskatzen badu eta/edo Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak proposatutako Kudeaketa Aginduak, behin sinatuta, horrela jasotzen badu.
- 🌸 Ikuskapen programatua errepideetan. Hondakinak tokiz aldatzeari dagokionez, ikuskapenak antolatuko dira errepideetan, eskuragarri dauden baliabideen arabera.
- 🌸 Legez kontrako lekualdaketak azaleratzea. Hondakinak mugaz haraindi lekualdatzeko planak modu programatuan ikuskatzeko prozedura orokorra aplikatzen jarraituko da beste proiektu batzuen ikuskapenetan, hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreak identifikatzeko.
- 🌸 Hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa biltzeko prozedura betetzen jarraituko da.

***Helburua: Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea.***

Hainbat urtetako proiektua da helburu estrategiko hori. Proiektuaren garapena honako hau erdiestera bideratuta dago: ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera. Horretarako, bi enpresa teknikoren laguntza izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako Ikuskapen Zerbitzuaren jarraibideen arabera, eta bitarteko eta baliabide egokiak dituzte abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, haietan sortutako hondakinak kudea ditzakete.

Enpresa jarduleei ILE I. maila emango zaie, bat etorrira urriaren 16ko 212/2012 Dekretuarekin, zeinek ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen baititu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen baitu Administrazioak kontratatutako jardueretarako.

### **2.2.6.- 2024/06 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa**

Araudia betetzen doan heinean, gero eta garrantzitsuagoa da salaketetatik datozen abisuei, SOS-DEIAK-en abisuei, gertakariei, istripuei eta abarrei ematen zaien erantzuna; izan ere, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira funtzionamendu-egoera anomaloetatik sortutako ingurumen-kalteak.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- 🌿 Erantzuna antolatzea, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, gertaera eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko.
- 🌿 Ikuskapen-zerbitzuak larrialdien eta taktika operatiboaren planetarako erantzuna antolatzea.
- 🌿 Tartean dauden sailekin koordinazioa hobetzea.

***Helburua: EAEko industria-jardueren lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea***

Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planaren ildo estrategiko hori Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzea xede duen kudeaketara hobekien egokitzen den helburuetako bat da, batez ere industria-jardueren ingurumen-arazoetan duten eragina esanguratsua denean, gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkak ere kontuan hartuta. Badira urte batzuk helburu hori betetzen ari dela, eta emaitza ona izan du. 2024an, aurreko urteetan hasitako proiektuekin jarraituko dugu.

Jarraian, helburu estrategiko honekin lotutako proiektuetarako helburu espezifikoak eta jomugak zehazten dira.






### 2.2.7.- 2024/07 proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean.

Jarduerak etetearekin lotutako ingurumen-arriskua kontuan hartuta, aurreko ekitaldietan bezala, proiektu honi eutsiko diogu.

Konkurtsu-prozedurek eragiten dituzten etete-kasu gehienen egoera juridiko berezia dela-eta, Sailburuordetzak arriskuaren kudeaketa sustatzeko egiten dituen jarduketek arrakasta desberdina izatea eragiten duela.



#### Helburu espezifikoak eta jomugak

-  Behin-behinean edo behin betiko eten diren jardueren ingurumen-arriskua identifikatzeko eta kontrolatzeko sistematika mantentzea eta optimizatzea.
-  Lurra, ura edo airea kutsatzeko ingurumen-arriskua murriztea, arrazoi ekonomikoen ondorioz jarduera eten duten edo konkurtsu-prozesu batean dauden edo egon daitezkeen instalazioetan eta arrazoi ekonomikoak ez diren beste arrazoi batzuegatik haien jarduera behin-behinean edo behin betiko eten duten instalazioetan.
-  Industria-jarduerak eten ondoren instalazioetan geratzen diren hondakinak eta lehengaiak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.

***Helburua: Zerbitzuaren ikuskatzeko gaitasuna handitzea.***

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, garrantzitsuena da eragin biderkatzailea sortzea, ikuskapen-ahalmena optimizatzeke. Horretarako, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala kudeatuko dira, eta Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak ikuskapenaren osagarri eta laguntza gisa erabiliko dira.

Jarraian, eremu honetako zenbait jarduera-ildo azaltzen dira:

-  Airearen kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko sarearen baliabideetan oinarritzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin lotutako egoera analitikoki ezaugarritzeko. GC/MSek detektatutako osagai organikoak interpretatzeko irizpideak ezartzea.
-  Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak betez.

*Helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea, helburuei, estrategiari zein irizpideei dagokienez.*

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak Estatuko nahiz Europako testuingurura egokitzea, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko: araudia egiteko hasi eta ikuskapenak egiteko irizpideetara. Horretarako, elkarrekin lan egin eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola: REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

### 3. GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEA.

2024. urtean, Ikuskapen Zerbitzuan egitura hau dago: zerbitzuburu bat, 13 ikuskapen-teknikari, aholkularitza juridikoa eta laguntza administratiboa. Aurrekoa kontuan izanda, bi ikuskapen-teknikari Bizkaian daude (Bilbon dute bulegoa), beste bi Gipuzkoan (Donostian dute bulegoa) eta gainontzekoak Araban (Gasteizen dute bulegoan, Lakuan).

Eskura daude baliabideetara egokituta daude programatutako jarduerak, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere lan horietarako konpetentzia teknikoa ziurtatzeko.

Ikuskapen-programaren helburuak betetzeko estrategia gisa eta Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planetik ateratako gidalerroekin bat etorritik, aurreikusi da kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea 2024. urteko ikuskapen-programan jasotako jarduera batzuekin laguntzeko.

#### 4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.

2018az geroztik, elektronikoki kudeatu eta izapidetu dira Ikuskapen Zerbitzuari lotutako ia administrazio-prozedura guztiak. Ikuskapen-txostenak elektronikoki artxibatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Sistema Orokorrean, ezarritako irizpideen arabera.

Arlo horretako 2024rako jarduerak ondorengo oinarriak izango dituzte:

- Ikuskapen-prozedura administratiboak zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea xede duen INGURUNET Ingurumen Kudeaketaren Informazio Sistema berrian sartzeari, legezketasuna kontrolatzea eta hari jarraipena egitea.
- Ikuskapenari lotutako datuen kontsulta eta ustiapena hobetzen jarraitzea, baita Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuen erabiltzaileen irisgarritasuna ere.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenen arloko programak, memoriak eta txostenak, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez.

#### 5. KONTROL-PLANA.

Kontrolari dagokionez, beste urteetako esperientzian oinarrituta, ILEen laguntza teknikoa mantenduko da IPPC ez diren jardueren araudia eta baimenak betetzen direla egiaztatzeko. Emisioak eta zarata kontrolatzeari dagokionez, ILEen arauzko kontrolei jarraipena egitea planteatu da, IPPC diren edo ez diren jardueren ikuskapen-proiektuen lehentasunak oinarri hartuta.

#### 6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.

Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea eta ingurumen-diziplina aplikatzea ikuskapenetatik eratorritako espedienteak kudeatzeko.

## 7. INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.

Proiektu bakoitzean egikaritze-kontrolako adierazle batzuk ezarriko dira, beraien jarraipena egiteko. Oinarrizko irizpide gisa, aurten proiektuen jarraipena gutxienez sei hilean behin egitea planteatu da.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa hau guztiz garatzeko. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hastea proposatu da, eta gainerakoak eskura dauden baliabideen arabera garatzea.

Barneko segimenduari esker, Programaren garapena doitu ahal izango da, lehentasuna emanaz ingurumenaren ikuspegitik garrantzi edo arrisku handiena dutenei. Jarraipen hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek parte hartuko dute.